

DURANGOKO 42. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Gazteak erakarri, literatura elikatu

Gazteak dira harrobia, haiek dira egungo eta geroko irakurleak, eta hori hala den aldetik, argitaletxeek ahalegin berezia egin ohi dute azken urteotan irakurle berriak literaturaren erresumara eramateko.

XABIER MARTIN
Durango

Durangoko Azokan, aurreko urteetan bezala, asko eta askotarikoak dira gazte literaturaren alorren eskura daitezkeen obrak aurtenean. Baina zeren nahi dute gazteek? Gazte literatura deitzen den horretan jasotzen diren obrek gazteen kezkei erantzuten diete? Aurreko belaunaldietako gazteen nahiak oraingo gazteenekin alderatuta aldatu egin al dira? Zaila da jakiten, baina idazleek zein editoreek gazteen atala euskal literaturaren oparoa dela uste dute, une gozoa bizi duela diote, eta non aukeratu ere badela, erruz.

«Gazte literaturaz hitz egitea osotasun bat bezala hartuta zaila da, baina behar bada mundu inizatikoaz aritu beharko genuke, norberak bere burua bilatzen duen uneaz», dio Mitxel Murua idazle eta editoreak. «Fernando Morilloren *Seximenduz* (Elkar, 2007) lanak islatzen du hori adibidez, lige kontuak eta halakoak azaltzen dira». Miren Agur Meabe bat dator sailkapen lanak egitearen zailtasunarekin. «Gaztediari buruz aritzean adin tarteak aipa daitezke, baina gazte literaturaren kontua azken urteotako industriaren asmakaria da, bere abantailak eta desabantailak dituen asmakaria». Sailkapen horrek hala ere, badu eraginik, «literatura hori askotan preskripzioz egiten delako, merkatu jakin bati begira».

Gazte literatura gaur egun eta duela 20 urte ez dira gauza bera, literatura hori gizartearekin batera



Miren Agur Meabe atzo, *Urtebete itsasargian* obrari buruz hitz egiten Durangoko Azokan. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

aldatu delako, errebindikazio berriak daudelako. «Gu gazteago ginenean ez zen gazte literaturaren kontzeptua adibidez», dio Meabek.

Edonola ere, historikoki trasgresioa aipatu izan da gazteen literaturaren ezaugarri gisa, eta egun ere gazteek trasgresioa bilatzen dutela ematen du, «Bukowski klasisiko bat da horretan eta oraindik ere interes handia pizten du gazteengan». Halaxe uste du Mitxel Muruak. Munduaren ikuspegi berriak deskubritzea da literatura horren ezaugarri nagusienetako bat. Gazteak deskubritzea. Subjektu hori aditz horrekin lotzea ezinbestekoa da Muruaren ustez, literaturak gazteak erakar ditzan, irakurle berriak konkista ditzan.

UMOREA, ERAKARGARRI. Umorea ere gazte literaturaren lehen lerroan izan ohi da, eta horren adibide gisa Felipe Juaristiren idazteko modua aipatzen du Mitxel Muruak, izan ere, trasgresioa eta umorea batera

datoz sarritan. Irudimena, fantasia eta surrealismoa ere bereziki indarturik ditu gazte literaturak. Hala ere, gazte literaturako ezaugarri horiek era guztietako literaturan aurki daitezke, baina kontua da gazteentzat idatzitako literaturaren errazago topatzen direla.

Alabaina, obra bat gazte literaturaren barrura sartu behar den edo handik at utzi behar den askotan ez dago batere argi. «Istorioa-

«Adin tarteak aipa daitezke, baina gazte literaturaren kontua azken urteotako industriaren asmakaria da»

MIREN AGUR MEABE
IDAZLEA

«Gazte literatura zer den azaltzea zaila den arren, agian, mundu inizatikoaz hitz egin beharko genuke»

MITXEL MURUA
IDAZLEA

ren protagonista haur bat delako gaztetxoentzako bilduma batean sar daiteke liburu bat, baina *Printze Txikia* obra unibertsa da adibidez, eta horrelako mila kasu daude». Liburu bat sailkatzea beti da «eremu irristakorra» Muruaren esanetan. Eta horregatik literaturara sailkapenetan azaldu gabe aztertzea hobe dela uste du. «Gaur egun euskal literatura oso plurala da zorionez; adin eta eraguztietako jendeari eskaintza egiteko gai da».

Miren Agur Meabek tesi hori babesten du, halaber. «Aniztasun handia dago atal horretan, oso gauza interesgarriak egiten ari dira». Eskolatan aniztasun hori aprobetxatzea oso garrantzitsua da idazlearen ustez, gazteek irakurtzeko zaletasuna har dezaten. «Benetako zaletasuna duenak erakargarriak diren lan ugari aurkituko du, baita gazte literaturatik at ere. Izan ere, zirkuituan dabilzan izenburu ezagunenetik aparte, irakurketa basatiagoak badaude».

Minbiziaren gaiari heldu diote Pirritx eta Porrotxek disko eta liburuan

ERREDAKZIOA
Donostia

Eskerrik asko! CDa eta liburuak plazaratu dute Pirritx eta Porrotxek. Minbiziaren gaia ardatz hartuta, 18 kantu eta hainbat ipuintxo bildu dituzte. Gaixotasuna, taburik gabe, naturaltasunez, itxaropenez eta alaitasun handiz landu dute. Izan ere, Elgoibarko (Gipuzkoa) Ane neskatila alaiak hala erakutsi die bere istorioarekin. Lau abestiren hitzak Joseba Sarrionandiarenak dira.

Diskoaz eta liburuaz gain, dagoeneko, Pirritx eta Porrotxek *Eskerrik asko!* emanaldiarekin hasita dade. Saioa Mari Mototsen ospitaleko egonaldian oinarritzen da. Protagonista ez da gaixo bat, sendatzeko eta bizitzeko ilusioa duen pirata txiki bat baizik. Tristurak eta pozak goxoagoak direla elkarrekin partekatzen direnean erakutsiko du Mari Mototsek.

CDan hainbat musikarik parte hartu dute aurreko lanetan bezala. Oreak Tx txalaparta jotzen, Tapatia eta Leturia trikiti eta panderoan... Kantariei dagokienez, Labrit, Ken Zazpi taldeko Enaut Elorrieta abeslaria, Deabruak Teilatuetaneko Aritz Mendieta eta Ubeda anaiak edota Ordiziako (Gipuzkoa) musika eskolako Zaldibiako haurrek parte hartu dute.

Euskaltzaindia-BBK sariako irabazleen lanak Azokan daude

Durangoko Euskaltzaindiak jarritako salmahian urtean zehar ateratako liburuak ongongo dira. Akademiak eta BBKk iaz saritu zituen lanak ere ongongo dira bertan: *Arkitetktoa* (Txema Garcia-Viana), *Joañes. Itxaropenaren sementa* (Alaitz Olaizola), *Herri maitea, herri dorpea* (Sebastian Gartzia Trujillo) eta *Narrazioak eta Olerkiak*.

